

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

2019ko landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga eta 2019ko 2. seihilekoko zaborren gaineko zerga kobratzea

Nik, Lucio Castañeda Martínez de Treviño Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, hauxe jakinarazten dut:

2019ko irailaren 30etik 2019ko urriaren 30era bitartean, bi egunak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean 2019ko ondoko zergak:

1. Hiri ondasun higiezin gaineko zerga.
2. Landa ondasun higiezin gaineko zerga.
3. Bideetako mantentze lanen tasa.
4. Zaborren 2019ko 2. seihilekoa

I. Ordaintzeko epea

A. Borondatezko epea: 2019ko irailaren 30etik urriaren 30era.

B. Premiamendu aldia (ehuneko 5eko errekararekin): 2019ko urriaren 31tik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamendu bidezko prozedura betearazleari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitu indarrean den Dirubilketarako Araudi Orokorrak.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A. Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: Guardiako Udaleko bulegoetan borondatezko epean banketxeren batean helbideratuta ez daukatenean.

III. Gomendioak

Bankuan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Guardiako Udalarari jakinaraziko zaio, egin beharreko jakinarazpenetarako.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Guardia, 2019ko irailaren 23a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO